



Bertsozale Elkartearen Berripapera

# Bertsozalea

[www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus)

2026ko APIRILA - 27Z. zenbakia

## Azken txanpan sartu da Gipuzkoako Herriartekoa

Amaitu dira final laurdenak eta hiru saio baino ez dira geratzen Herriartekoa amaitzeko: bi finalurreko eta finala. Finalurrekoetako sarrerak salgai daude [www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus) atarian.

Urtarrilean hasi zuen ibilbidea Gipuzkoako Herriartekoak, indartsu eta jendetsu: 57 taldek eman zuten izena aurtengoan -24 eta 38 izan ziren 1999an eta 2017an, hurrenez hurren- eta 350 lagun ariko dira taldekakoa den txapelketan. Ardura desberdinak hartzen dituzte taldekideek: bertsoan, gai-jartzaile lanetan, epaile lanetan eta antolaketa lanetan aritzen dira, bakoitza bere zereginarekin.

Hainbat fase izan ditu Herriartekoak. Lehenengo faserako zortzi eskualdetan banatu zen Gipuzkoa, eta eskualde bakoitzetik irabazle bat pasa zen hurrengo fasera, bigarrenean. Apirilera prest zeuden sailkatutako taldeak, eta bigarren fasea jokatu da: lau saio egin dira Zaldibian, Azpeitian, Hernanin eta Soraluzen, eta ebatzi da zein taldek kantatuko duen finalurrekoetan.

Orain artekoak bukatuta, finalurrekoen txanda da orain: maiatzaren 9an eta 16an izango dira. Lehenengoa Oñatiko

Gaztelekuan izango da eta Zumarraga-Urretxu 1 eta Txingudi A taldeek hartuko dute parte. Bigarrena, berriz, Tolosan izango da eta, horretan, Zaharrak berri eta Leintz taldeek hartuko dute parte. Lau talde horietatik bik kantatuko dute finalean. Finala Aian izango da, maiatzaren 30ean, 18:00etan. Aurretik, ordea, goizean poteoa eta eguerdian bazkaria antolatu dira.

### Sarrerak, salgai

Gipuzkoako Herriartekoko finalurrekoetako sarrerak salgai daude [www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus) atarian, eta laster izango dira finalekoak ere eskuragai.

Informazio gehiago [www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus) atarian dago: taldeak, saioak, argazkiak eta abar.

F.C.BAIIENA: 37/126

ISSN 1138-4530

L.G. 55-614/97

Erredikzioa: Bertsozale Elkarte / Diseinu-maketazioa: Dixidu Diseinu Grafikoa / Argazkiak: Xepelar Dokumentazio Zentrua  
Tel.: (0034) 943 694129 / e-posta: komunikazio@bertsozale.eus



57 taldek parte hartu dute aurtengo Herriartekoan. // XDZ



IÑAKI  
VIÑASPRE SIMON

GASTEIZ. 2026-03-28

ARABAKO BERTSOLARI  
TXAPELKETAKO TXAPELDUNA.

Doinua: Larogeita hamar urte

Ze publiko ederra dugun ta ze boskote itzela!  
Egitan pentsatzen nuen aukerarik ez nuela  
Martxoak 3 gogoan denok gaur arte bezela ta behin hasi ta hobeto bota ezker kartzela. (bis)  
Ama etorri zait burura ezin zen izan bestela maite dut bere bixita maite dut bere epela ta nahiz ta aspaldian dugun beste erdia joan zela aitarentzat ta zuretzat izan dadila txapela. (bis)

# Martxan dira herrialdeetako Eskolartekoak

**Nafarroako eta Gipuzkoako Eskolartekoak amaitu dira, eta Bizkaikoa ari da jokatzeko orain; Arabakoa eta Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoakoa maiatzaren 30ean izango dira, hurrenez hurren.**

Bertsozale Elkartek eta Ikastolen Elkartek elkarrekin antolatzen duten egitasmoa da Eskolartekoa eta, ohi bezala, Euskal Herrikoa jokatu aurretik, herrialdez herrialde egiten dira saioak eta finalak.

Nafarroa izan da aurten eskolartekoa abiatzen lehenengoa. Martxoaren 13an jokatu ziren kanporaketak Donezteben eta Iruñean, eta finala Leitzako gaztetxean jokatu zen apirilaren 17an. Kattin Madariaga izan zen txapelduna eta Kattalin Lizarraga txapeldunordea.

Gipuzkoako eskolartekoa ere bukatu da, dagoeneko jokatu dira lau kanporaketak eta finala. Kanporaketak martxoaren 18an jokatu ziren Altzon eta Oñatin, eta martxoaren 27an Legazpin eta Usurbilen. Finala, berriz, apirilaren 24an izan zen Azpeitiako Elikagunean. Anei Urbitarte izan zen txapelduna eta Kattalin Arabolaza txapeldunordea, irabazlearekin berdinduta.

Bizkaian asteon hasi da Eskolartekoa. Apirilaren 27an, 29an, maiatzaren 4an eta 6an jokatu dira kanporaketak, Bilbon, Durangon, Muxikan eta Igorren, hurrenez hurren. laz hasitako

bidetik, aurten ere idatzizko finala bi egunetan banatuko dute: maiatzaren 29an izango da Lehen Hezkuntzako 6. mailakoen finala eta maiatzaren 30ean nagusiagoena. Bat-bateko finala ere maiatzaren 30ean izango da. Biak izango dira Aulestin.

Maiatzaren erdian hasiko dira arabarrak: 14an, 15ean eta 21ean izango dira kanporaketak, Legutition, Gasteizen eta Kanpezun. Finala, ostera, maiatzaren 23an jokatu da, Aramaion.

Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoako gazteek maiatzaren 23an izango dute sailkatze saioa, Lartzabelan eta finala, berriz, ekainaren 7an izango da Itsasun.

## **Ekainaren 13an izango da Euskal Herriko finala**

Herrialde bakoitzetik sailkatutako gazteek Euskal Herriko finala jokatu dute, herrialde bakoitzetik bik. Ekainaren 13an izango da finala Arantzan (Nafarroa), 11:30ean hasita.



Leitzan jokatu zen Nafarroako Eskolarteko finala. //XDZ

# Maiatzaren 9an jokatu da Hernandorena sariketako finala

**Pagolan eta Hendaian izan dira sailkatze saioak eta Uztaritzen izango da finala. Hogei urtez etenik gabe antolatzen den sariketa da Hernandorena.**

Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoan bi urtez behin jokatu den bertsolari gazteen txapelketa da Hernandorena sariketa. Euskal Herri guztiko bertsolari gazteek kantatzen dute; aurtengoan, 12 bertsolari gaztek hartu dute parte.

Bi sailkatze saio jokatu dira dagoeneko, Pagolan eta Hendaian. Lehenengoan Aritz Katarain, Danel Herrarte, Josu Txoperena, Kattin Madariaga, Nahia Etxeberri eta Pagoa Bidart aritu ziren kantuan eta Etxeberri izan zen nagusi. Bigarren saioan, berriz, Irantzu Idoate, Irati Alcantarilla, Izaro Bilbao, Johane Larre, June Aiestaran eta Sabin Abarrategi aritu ziren, eta Irati Alcantarillak irabazi zuen saioa.

Horrela, bi saioak jokatu, erabakita geratu da zeintzuk izango diren finalean kantatuko duten sei bertsolariak: Irantzu Idoate,

Irati Alcantarilla, Izaro Bilbao, June Aiestaran, Kattin Madariaga eta Nahia Etxeberri. Finala maiatzaren 9an izanen da Uztaritzeko Latsa gelan, 19:00etan. Antolakuntzak bertsozaleak gonbidatu nahi ditu finalaz goatzera.

## Hogei urteko ibilbidea, Hernandorenaren omenez

Duela hogei urte izan zen sariketa honen lehen edizioa eta ordutik ez du etenik izan. Sariketak Teodoro Hernandorena Barandiarai zor dio izena. Sortzez zizurkildarra zen eta Donibane Lohizunen bizi izan zen 1936ko gerraren ondorik. Han, saiakera handia egin zuen bertsolariaren sustapenean; bera izan zen, besteak beste, Mattin Treku eta Fernando Aire Xalbador bertsolariak Euskal Herriko plazetara atera zituen.



Hernandorena sariketako sailkatze saioa, Hendaian. //XDZ

# UEMAren Esnatu dinamika aurkeztu da

**Bertsozale Elkarreak ere parte hartu du dinamikan, askotariko beste eragile batzuekin batera; datozen hilabeteetarako konpromisoak hartu dituzte.**

Apirilaren 14an aurkeztu zuen Esnatu dinamika UEMAK, arlo askotariko 17 eragilerekin batera, Orioko Arraunetxan. Oier Iurrumendi Etxeberria Bertsozale Elkarteko koordinatzailea eta Ainhoa Urien Telletxe lehendakaritza taldeko kidea aurkezpenean izan ziren, AEK, Bankoa-Abanca, Cederna-Garalur, ELA, Euskadiko Futbol Federazioa, Euskaldendak Konfederazioa, Euskalgintzaren Kontseilua, Euskal Pilota Federazioa, Fagor taldea, Hekimen, IKA, Kutxabank, LAB, Laboral-Kutxa, Lanartea eta Plazaola Partzuergo Turistikoko ordezkariekin batera.

Euskararen lurgunea sendotzeko, datozen bost urteetarako konpromisoak hartu ditu Bertsozale Elkarreak. Transmisioaren sokaren katebegi guztietan eragingo du: hezkuntza arautuan, hezkuntza ez arautuan eta plazetan. Datozen hilabeteetan arituko gara konpromiso horiei alorrez alor forma ematen.



Bertsozale Elkarteko kideak Esnatu egitasmoaren aurkezpenean. //UEMA



## Puntua jarrita

KLARA SCHMIDT LIZARDE

Orain dela pare bat urte bertsozale inguratuta topatu ginen gure pisukideetako bat (hemendik aurrera M.) eta biok. Harri bat altxatu orduko bertsolari/bertsozale bat ateratzen zen gure inguruan urte hartan. Gipuzkoako txapelketako burbuila horretan murgilduta, bertsoekin koketeatzen hasi ginen. Espero bezala, hortik gutxira frikismoak fuerte jo zidan eta lagunekin bertsoan whatsapeatzen ere hasi nintzen. Gogoratzen al zara gure bertso-whatsapekin, Nori?

Zorionez, oholta batetik bestera gure pisukide bertsolariak guri zertxobait irakasteko tartea eskaintzen hasi ziren, eta trebatzen hasi ginen gutxinaka. Normalean idatziz egiten genituen bertsoak, eta ikaragarri ondo pasatzen genuen, baina ez zuen egitura formalik hartu. Etxean zehar bertso oharrak uzten genituen; puntuka komunikatzen ginen; bertso erromantikoak eskaintzen genizkion elkarri... proiektu sekretu bat ideatzen ere hasi ginen, baina hori oraindik ezin dizuet kontatu.

Hurrengo ikasturtean Bizkaiko txapelketa ailegatu zen, eta horrekin batera, gure pisukide berria; bertsolaria hau ere, nola ez. Berak eman zion forma gure bertso-eskolari. Zuek bezala, Nori, "presiorik eta epairik gabe bertsoan aritzeko gune bat nahi genuen, besterik ez". Pixkanaka taldea handitzen joan da eta orain lau ikasle batzen gara bertso mamarratxoak egiteko. Ostiralero ez, ostiraletan. Orain dela gutxi, Bartzelonako Euskal Etxean izan zen gure debuta, pare bat bertso kantatu genituen M.rekin. Bertso-eskola, berriz, Señora Sariketako aurkezpenean estreinatu dugu Fleki Berts izenpean, bertso-sorta batekin.

Bertsoetan esan genuen: 30 urteren bueltako krisiari aurre egiteko batzuek speeda hautatzen dute; guk flekiloa moztea eta bertsoa hautatu ditugu. Bukatzeko, M. itzalpetik aterako dut: Maialen, zure bertsozaleatasuna txikitatik hezi zuten zure gurasoek, baduzu garai hartako oroitzapen gazirosorik?

# Koplak

## Maiatzean bilduko dugu bazkide kuota

Urtero bezala, maiatza hasieran kobratuko da Bertsozale Elkarteko bazkide kuota. 2023tik igogerarik egin gabe egon da, eta aurtengo Batzar Nagusian kuota eguneratzea onartu da: 70 eurokoa izango da norbanakoentzat eta 140 eurokoa elkarte eta erakundeentzat.

# Poto-Finixa



Ahalduntzen, ahalduntzen... eta aldarean bukatu!  
Xenpelar Dokumentazio Zentroa

## Bukatu da aurtengo Haizea dator ekimena

Bertsularien Lagunak elkarteko hezkuntza lan taldeak sortutako ekimena da *Haizea dator* eta Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoako bertso eskoletako ikasleei eta jadanik bertso eskoletatik atera diren bertsolari gazteei bertso saioetan kantatzeko aukera ematea du helburu. Aurtur ere bost saio egin dira azarotik apirilera bitartean: Hendaian, Itsasun, Atharratzen, Ziburun eta Baionan.



PUBLIZITATEA